



## 6. KANPO ERLAZIOAK

Sorburua eta helburua EAEtik kanpo dituzten loturen artean, 115.040 eta 98.429 hurrenez hurren, garrantzi handiena Burgosko probintziak dauka, eta horren atzean, oso gertu, Kantabria dugu. Desplazamendu gutxiagorekin, Frantzia, Errioxa eta Nafarroa ditugu.

### Taula 44

#### EAE sorburu edo helburu duten kanpo desplazamenduak

	Sorburua	Helburua
Burgos	30.161	25.810
Kantabria	29.875	30.383
Frantzia	12.390	13.356
Errioxa	10.572	10.219
Nafarroa	12.203	11.570
Besteak	19.838	7.090
	<b>115.040</b>	<b>98.429</b>

Jarraian deskribatuko ditugu mugakide ditugun inguruekiko erlazioen ezaugarri nagusiak, honako inguru hauekin izaten diren desplazamenduen bidez.

### 6.1 Burgos

Burgosen sortzen diren 30.161 desplazamenduk EAE dute helburu. Bidaiak sortu eta erakartzen dituen gune nagusia Miranda de Ebrok (%34,4) eta Menako Bailarak (%27,5) osatzen dutena da. Miranda de Ebrok oso erlazio handia du Arabako hiriburuekin (%52,3) eta Arabako Bailarekin (%34,7). Erlazioak izaten direneko beste inguru bat Menako Bailara da, nahiz eta oraingoan erlazioak Bizkaiarekin izaten diren, Enkarterrekin zehazki. Hain zuzen ere, aipatutako bailaratik datozen desplazamenduen %75,6k Enkartazioak dute helburu.

Motiboei dagokienez, jasotako erantzunak kontuan hartuz gero, gestio pertsonalek justifikatzen dituzte Burgosen sortu eta EAE helburu duten desplazamenduen %43,2. Epigrafe horren ostean aisia dator, %22,1ekin eta, azkenik, lana, %18,7rekin.

Moduei erreparatuz gero, Burgostik EAera zuzentzen diren desplazamenduen %87,9 automobiler egiten dira. Modu kolektiboek, berriz, autobus publikoaren eta zerbitzu diskrezionalaren artean erdibana, %9,2 hartzen dute.

### 6.2 Kantabria

Kantabrian sortu eta EAE helburu duten loturetan (29.875), protagonista garbi bat antzematen da: Castro Urdiales eta Bilbo Handiaren arteko lotura. Garrantzia hartuz doa Kantabriako hiriburua sorburu gisan, eta baita Laredo ere. Hiru udalerriotan sortzen diren desplazamenduak totalaren %85,9 biltzen dute.

Motiboei dagokienez, lana da desplazamenduok eragiten dituen kausa nagusia, %40,2ekin; jarraian dator gestio pertsonalak egitea, %32,5ekin eta ondoren ikasketak, %10,8rekin.

Erabilitako garraio moduak aztertuz gero, ohartuko gara automobila dela, argi eta garbi, nagusi, totalaren %87,2ra iristen baita.

### 6.3 Frantzia

Frantziaren eta EAEn arteko desplazamenduak Hendaian sortzen dira nagusiki, hantxe gertatzen baitira detektatutako 12.390 desplazamenduen %60,3. Biarritzek, berriz, %11,5 biltzen du. Bidasoa Beherea dugu desplazamendu horien inguru hartzaileetako bat.

Motiboei dagokienez, dispersio bitxia gertatzen da, aisiari eta erosketei lotutako jarduerak garrantzi handia baitute. Hala, Frantzia sorburu duten desplazamenduen %27,9 aisiak eragindakoak dira; %25,7, berriz, lanak eragindakoak, eta %18,2, erosketek eragindakoak. Motibo horietaz gainera, ikasketek (%13,9) eta gestio pertsonalek (%7,4) ere inportantzia daukate.

Moduei dagokienez, Iparraldean garraio publikoek presentzia txikia dutela ikusten da; automobilaren presentzia, berriz, %91ekoa da deskribatutako desplazamenduetan.

### 6.4 Errioxa

Errioxan sortu eta EAE helburu duten desplazamenduak, 10.572, Logroño eta Arabar Errioxaren arteko desplazamenduak dira gehienak, hau da, totalaren %58,4. Arabar Errioxaz gainera, Kantauri Arabarrako eskualdeak ere badu bere garrantzia, %12,9rekin. Gainerakoa Arabako eskualdeetan sakabanatuta dago, %1 biltzen duen kolektibo bat izan ezik, Bilbo Handira doana, hain zuzen.

Motiboetan dispersio nabarmena badago ere, lanekoa da indar handiena duena, totalaren %38,2rekin. Gestio pertsonalek %29,9 biltzen dute eta erosketek %12,7; ondoren dator aisia, %8,9rekin.

Bereziki aipagarria da desplazamendu ia-ia guztiak automobileraz egiten direla.

### 6.5 Nafarroa

Nafarroatik datozen desplazamenduek (12.203) Gipuzkoa dute helburu nagusiki, nahiz eta sakabanatzeko joera handia izan, baita Lurralde Historiko barruan ere. Lehenik Bidasoa Beherea helburu duten desplazamenduak ageri dira, %17,7; ondoren, Donostialdera doazenak, hots, %10,7. Aipagarria da Goierriko eskualdera doan kolektiboa, %8,8, eta Arabako Lautadara doana, %6,6.

Desplazamendu hauen motiboen artean, lana dugu nabarmenki nagusi, %51,3ekin. Bigarren motibo inportanteena gestio pertsonalak dira, %21,2rekin, eta ondoren erosketak, %12,1ekin.

Desplazamenduen %80,5 automobileraz egiten da, eta autobus diskrezionalaren presentzia nabarmena da, %7,9rekin.